


Astekaria



elgoi



Aste Santuko prozesioak Usadio zaharren piztuera



M A P F R E

ASEGURU ETXEA

San Frantzisko 40 - ☎ 74 05 82 - 20870 ELGOIBAR

JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI"

Edari Banatzailea



GURELSA



SANTA ANA 41. ☎ 74 10 41 - 74 11 32

ostarku



**ESKA EZAZU ORDUA
ZURE JAUNARTZE
ARGAZKIETARAKO**
**Bizitza guztirako oroigarria
izango duzu**

*Ez laga azken
momenturako Zatoz!*

Santa Ana, 5 - Tel. 74 06 46 - ELGOIBAR

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

PUBLIZITATEA:

Myriam Aldazabal.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegi, Marivi Agirregomezkorta, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Idoia Esnaola, Ina Garagarza, Ane Goikoetxea, Amaia Gorostiiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzio Otaegi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabalo, Lucia Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.600 ale

LEGE GORDAILUA: SS-

1.038/92


ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



kutxa fundazioa
fundación kutxa

ZENBAT BURU



HAINBAT ABURU

Gurasoetatik seme-alabetara

Hizkuntza normalak gurasoetatik seme-alabetara pasatzen dira, bizitza bera bezala, gero kalean, eskolan, komunikabideetan eta administrazioan erabiltzen direlarik. Hori da hizkuntza baten bizimodu normala.

Kate honen lehenengo begia eta abiapuntua familia da, hau da, aita-ametatik seme-alabetara doan zubia. Zubi hori, ordea, erdi kraskatua dago gure artean. Guraso batzuek ez diete irakatsi euskara beren etxeko kimu berriei; badira euskararen altxorra ederki asko beren umeei pasa dietenak ere.

Euskara salbatzeko irtenbide asko bila litezke, baina zenbait soluzio adabaki hutsak lirateke, oinarrian dagoen okerra erremediatzeko balio ez dutenak. Hizkuntza normalen funtzionamendu normalera eraman behar dugu euskara, baina lehenik transmisioa bera zaindu behar dugu arretaz eta hortxe dago gakoa. Izan ere, dakitenek hitzegiten ez badute eta beren seme-alabei ematen ez badiete, zertan gabiltza?


Badakigu hizkuntza fenomeno nahasia dela, norbanakoari eta gizarteari dagokiona. Horrexegatik irtenbide sinpleek ez dute balio hemen. Gainera, hor dago inguruko gizartearen eragina, derrigorrez aintzat hartu beharrekoa.

Hortaz, egoera kontuan harturik, bi frontetan egin behar da lana: gizabanakoaren mailan, euskara gehiago estima, landu eta zabal dezaten; eta gizartearen edo erakundearen mailan, alor guztietan euskararen erabilera eta bizitza ziurta dezaten.

Azken urteotan, agian, bigarren arloari eman diogu garrantzirik gehien, eta beharrezkoa zen; euskarak lehen ez zuen itzala eta erabilera lortu baitu zenbait giro eta arlotan. Euskararen betiko arloak zaintzea eta indartzea oso garrantzitsua da gure hizkuntzaren iraupenerako, eta horien artean, etxeko transmisioa eta belaunaldiz belaunaldi doan katea bizirik mantentzea axola handikoa da. Izan ere, zertarako da presa ederrak egitea iturria hilda badago? Horra arazo larria.

Alberto Iriondo

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

- **IMH** parean, autopista azpian, dauden txakur txabolek hor segitu behar al dute? Alkatearekin egon gara eta berak esan digunez txabole-tako lurrak pribatuak dira. Etxe berriak amaitu arte ezin da ezer egin. Etxeak amaitu ostean, berriz, txabolak hortik kendu beharko direla adierazi digu.



KEXAK

- Honako hau kexa bat baino gehiago proposamen bat da. "Udalari eskelak ipintzen diren lekuetan panel modukoren bat jartzea eskatu nahi diot, eskelak horma, farolak eta horrelakotan itsastea ez baita oso estetikoa".

- "Elgoibartik San Lorentzoko bidean, hasierako zatian, konponketa lanak egin dituzte eta galipota erabili dute. Baina sobratutako galipota pendizean behera bota dute. Enpresa Construcciones Galdiano izan da, orbaitek ardurak eskatzea gustatuko litzaidake, hala ez al du inork garbitzeko intentziorik?"



TXALOAK

Ikastolako bi neska etorri dira guregana Kilometroetako batzordekoak txalotzeko. Izan ere, ilusio handia egin omen zien Goenkaleko antzezleak euren artean ikusi eta eurekin berba egiteko aukera edukitzeak

ESKUTITZAK

Alkatea eta HB

Badira hiruzpalau aste Alkatea eta HBren arteko ezinikusiek BARREn argia ikusi zutela. Orain arte ez dira ondoegi konpondu eta aurrerantzean ere ez dirudi gauzak asko aldatuko direnik.

Batetik, Alkateak Jabi Agirrenen kontra gogor ekin zuen, EGIN-eko kroniketan gezurrak baino ez dituela esaten. Gainera, HBri iruzurra egitea leporatzen dio, al-derdi horretako zinegotziak ba-tzordeetara ez direla azaltzen esanez.

Bestetik, HBk ere berehala erantzun dio, Jabi Agirrerri konfidantza osoa eskainiz eta eurak batzordeetara joaten direla esanez. Hauek gezurretan dabilena Alkatea dela diote, gezurretan eta ezkutuko gauza mordo batekin gainera: kontratazio irregularrak, ezkutuko informazioa, sekretismoa,...

Eta irakurloek, herritarrok azken finean, kieto hementxe, hurrengo kapituluan zer gertatuko den zain, Goenkaleko kapitulu korapilatsuak bailiran.

Horrela konpondu behar al dizkigute arazoak 'gure ordezkariek'? Horrela segitu behar al dute beste 650 urtean?

Ez naiz ni hemen arrazoia zienek daukan esaten hasiko, besteak beste, ez baitakit. Baina errezeloa daukat, gehienetan gertatzen den bezala, alde biek izango dutela

egiaren zatitxo bat. Eta horixe da hain zuzen ere, herritarrontzat okerrrena: inor benetan zuzen ez ibiltzea, denak ere oker xamar dabil-tzala usaintzea.

Lehen ere politikoeek ez dute inoiz fama onegirik izan, baina horrela segituz gero, kosta behar zaie fama txarra bizkar gainetik kendu eta estimazio piska bat irabaztea. Halere, nahiz eta estimazioziorik izan ez, hauteskundeetan hautesleen konfidantza izango dutela badakite eta horixe da tente mantentzen dituen.

Bukatzeko, horrelako sesioetan gainontzeko alderdi politikoeek betetzen duten papera aipatu nahi nuke (betetzen ez dutena, hobeto). Inork ez du barbarik ere esaten. Badirudi ez dakitela ezer (malo!), edota jakin arren ez dutela busti nahi (hau ez da hobe!). Zergatik ez dute dakitena esaten? Hauteskunde garaian ez al dute ba esaten herritarren zerbitzura egongo direla? Informazio guztia emateko prest egongo direla?

Herritarrok Elgoibarko Udalean zer gertatzen den jakin nahi dugu, jakin behar dugu. Ez dut uste hori asko eskatzea denik, herriari eta herritarroi zor zaigun minimoa horixe baita: informazioa, egiazko informazioa.

Besterik ez, barruak hustutzeko gogoia nekuan eta horixe da egin dudana. Inor minduko ez nuelakotan.

A. L.

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Aspaldi desagertu zen Ongarri Kultur Elkarteak antolatutako lehen Olenzero "mistoa" da argazkikoa. **Maria Luisa Gurrutxagak** utzitako argazki hau 1965eko abenduaren 24koa da, Azkuek Txariduna parean ateratakoa. Argazkiko zenbaitek esan digutenez, neskak eta mutilak lehen aldiz atera ziren Caritasen bidez beharzuentzat laguntza eske. Gehiegi luzatu gabe, argazkian agertzen direnen izen-abizenak emango ditugu jarraian, asko dira eta:

Atzetik hasita pankarta inguruan: **Miguel Angel Konde, Angel Txillarre, Pedro Sodupe "Gelatxo", Manolo Santos eta Pedro Bergara.**

Bigarren ilaran: **Viñaras, Modesto Larrañaga, Jabier Gurrutxaga, Jorge Urbieta "Aldapa", Jose M. Astigarraga, Juan Pablo Iglesias, Juan Bautista Izagirre, Juan Esnaola, Eugenio, ezezaguna** (burua erakusten duena), **Jose Ignacio Korta, Txus Arakistain, Manolo Gurrutxaga eta Julian Iriondo.**

Hirugarren ilaran: **J. M. Arregi, Patxi Zubiaurre,**

ezezaguna, Jose Mari Arakistain, Janin, Jose M. Bastida eta Sabin Txurruka.

Laugarren ilaran: **M. Carmen Arriola, M. Cruz Urzelai, Rosi Garate, Esmeralda Bores, M. Carmen Etxeberria, M. Loli Gurrutxaga, M. Loli Eizagirre, M. Pilar Txurruka, Blanca Badiola, M. Luisa Usabiaga, Rosa M. Arrillaga, Antonia Irureta, Begoña Badiola, Margarita Gurrutxaga, Gemma Agirregomezkorta, Ana M. Egaña, Marisa Lizarralde eta Belen Etxeberria.**

Bosgarren ilaran: **Maria Luisa Zubiaurre, M. Jesus Gabilondo, Itziar Lizarralde, Amaia Mujika, Txus Bilbao, M. Antonia Artetxe, Maite Beristain, Angelita Larrañaga, Begoña Iriondo, Josefina Ansola (†) eta Zizili Urain.**

Seigarren ilaran: **Regina Arrieta, Arrate Astigarraga, Karmele Garcia, Koro Prieto, M. Juli Konde, Maite Ajuria, M. Asun Uriarte, Rosa M. Etxeberria, Ailitxu Bilbao eta M. Aranzazu Gabilondo.**

Aurreko ilarakoak: **Juanjo San Martin (†), Miguel Angel Garate, Jose Ignacio Elkoro-Iribe, Karmelo Loiola eta Gillermo Gorostiza.**

Umeak: **Josune eta Izaskun Urbieta.**

Elgoibar, ibiltari atzerri

Gaur egun distantziak gero eta motzagoak dira. Hiriburuetan ezezik, herri txikietan ere ez da bat ere harrigarria beste herrialde batzuetako jendearekin topogitea. Eta Elgoibarren bertan badugu horrelako kasurik. Herrialde eta kultura ezberdinak ezagutzeko egarriz beraien etxea laga eta ingelesa irakatsiz bizimodua aurrera ateraz bizi dira gehienak. Horietako lau daude Elgoibarren.



Duncan Jones

24 urteko ingeles honek zientzia politikoak ikasi zituen eta ingelesaz gain gaztelera eta frantses piskat ere hitzegiten badaki.

Duncan Jones-i ingelesa irakastea asko gustatzen zaio, “eta horri esker toki ezberdinak ezagutzeko aukera dut”. Richard-en kasua oso antzekoa da. Halere, berak esan digunez, “beti izan dut Europa ezagutzeko gogoia, historia aberatsa duelako, kultura anitzak aurkitu ditzakezulako gehiegi ibili gabe”. Geroan gehiegi pentsatu gabe bizitzea gustatzen zaie, planak egin gabe, “inprobisatuz”. Irailean iritsi ziren Elgoibarrera eta gaur egun alokatutako pisu batean bizi dira.

Gustura daude Elgoibarren. Richard-en esanetan, “asko disfrutatu dut kalera atera, merkatura joan eta jendearekin hitzegiten”. Beraien ustetan, elgoibartarrak irekiak gara, “jende langilea iruditu zait zaretela” esan digu Richard-ek. Duncan-en kasuan, berriz, “zailagoa izan da. Batetik hizkuntzaren arazoa nuelako eta bestetik, astegunak lanean pasatzen ditudalako eta larunbatetan hain egoten da altu musika tabernetan, ezin izaten dela hitzegiti!”.

Txikiteoa

Badaude zenbait ohitura harrigarriak egin zaizkienak, “esate baterako, eguerdi partean bi orduz geratzea bazkaltzeko”. Gizartea nahiko kontserbadora dela iruditu zaie, “Australian eta Ingalaterran, jendeak oso gazte alde egiten du etxetik. Hemen ezkondu eta gero”. Beste ezberdintasun bat, “jendeak tabernaz taberna ibiltzeko duen ohitura da. Gu, taberna bakar batean egoten gara denbora guztian eta 11,30ak aldera ixten dituztenean, etxeetan elkartzen gara”. Oso adierazgarria da, baita ere, “notiziarioak hemen gaueko 9etan



Richard Jefferies


Espainiar filologia karrera egina duen australiar honek ingelesa, gaztelera eta italiara hitzegiten ditu.

izatea. Ingalaterran arratsaldeko 6etan. Eguna asko luzatzen da hemen eta bizimodua oso zorrotza da”. Duncan-i klima asko gustatu zaio “bai eta paisaia ere, mendiz inguratua egotea”. Horrez gain, “famiak pisu asko duela nabarmena da. Merkaturan, kantitate handitan saltzen dituzte gauzarik gehienak. Ingalaterran, aldiz, pertsona bakar batentzat askoz prestatuagoa dago dena”. Babak eta kokotxak probatu dituzte lehen aldiz Euskal Herrian eta biegi gustatu zaizkie asko.

Rockabili talde batean

Ez omen dira atzeritar sentitzen. Richard-en hitzetan, “ni Australian ere nahiko atzeritar sentitzen nintzen. Kantaria naiz eta bizitza ezberdina neraman”. Musikari eutsi nahi izan dio Richard-ek Euskal Herrian ere eta Irungo musika talde bateko abeslari izatea lortu du, rocka-

Irren pausalekua



Gabriel Finn

*Ingelesa, gaztelera eta italiar
piskat ezagutzen dituen irlandar honek
27 urte ditu.*

bili musika egiten dute. Richard Euskal herrian bizi da eta bertan jarraitzeko asmoa du. Duncan-ek, “momentu bakoitzean nagoen tokiko biztanle” dela aitortu digu.

Shauna eta Gabriel

Gabrielek kotxeak konpontzen zituen tailer batean. Lan hark ez zuen betetzen eta beste zerbait egin nahian, ingelesa irakasteko diploma ateratu zuen. Shauna ezagutu eta biek Mexikora alde egin zuten. Urtebete eman zuten ertamerikako herrialde hartan. Shaunak ikasketak amaitu zituenean planteatu ere ez zuen egin lan bila hastea, “guretzat gauzarik normalena da toki batean lana aurkitu eta asentatu aurretik, beste kultura batzuk ezagutzea”. Shauna urrian iritsi zen Elgoibarrera eta Gabriel otsailean. Mexiko baino nahiago dute Elgoibar, “beharbada antz handia

duelako Irlandarekin”.

Shauna Duncan-ekin eta beste mutil batekin bizi da eta Gabriel IMHn ikasten duten hiru neskekin, “oso jatorrak dira. Normalean beraiek kozinatzen dute eta benetan gauza goxoak prestatzen dituzte. Oso gustuko dut hemengo gastronomia”. Shauna kuadrilen ohiturak harritu du, “Elgoibarraren bakoitzak bere taldea dauka eta talde horretako bat ezagutu behar duzu gainontzekoak ezagutzeko”. Irlandan, Gabrielelek azaldu digunez, “ezberdina da. Zure lagun taldea izan arren, kalera ateratu eta edozeinek elkartzen zara”. Shaunak denbora libre lasai-lasai etxean ematen du gehienetan, “irakurtzen eta idazten”. Kontatu digunez, Mexikon kokatzen den istorio bati buruzko liburua idazten ari da. Gabrielelek, berriz, bere etxeko balkoian eseri eta paisaia begiratzea du gustuko. Halere, noizean behin ateratzen dira eta egin izan dute juerga bat edo beste, “ama haserretu egingo litzateke hemen gaueko 5etan oheratzen naizela jakingo balu!”, esan digu Gabrielelek.

Pintxoak eta ebakia

Etxetik urruti egoteak noizean behin nostalgia sortzen die, Gabrielelek bi urte dituen iloba txikia dauka eta “asko gogoratzen naiz berarekin. Logelako horman bere argazki bat daukat”. Shaunak kontzertuak botatzen ditu faltan, “orain gutxi izan nintzen Donostian ‘El ultimo de la fila’ entzuten. Baina Dublínen ia astero egoten da zerbait”. Momentu txarrak dituztenean, bakkrik sentitzen direnean batak bestearengana jotzen du. Shaunak jakinarazi digunez, “gure artean hitzegiten dugu. Eta, bestela, sentimentuak

idaztea oso terapia ona da”.

Hara eta ona ibiltzeak, beste gauza askoren artean, lagun asko ematen omen ditu, “nik oso adiskide onak daukat batean eta bestean. Eta ahal dudan guztietan elkartzen naiz beraiekin”, azaldu digu Gabrielelek. Elgoibartik Irlandara zerbait eramatekotan, Shaunak “pintxoak” eramango litzuke, “izugarri gustatzen zaizkit” eta Gabrielelek, “kafe ebakia”. Hemen utziko litzukete “fabrika zaharrak”. Bi hauek ere momentuz ez dute asmorik Irlandan asentatzeko, oraindik ikusteko eta ikasteko asko baitaigo”.



Shauna Gilligan

*Historia eta literaturaren lizentziatura
eta historiako masterra ditu eginak
23 urteko irlandar honek.*

*Eta ingelesaz gain, irlandesa, gaztelera,
frantsesa eta errusaiera piskat
hitzegiten ditu.*

Elgoibarko zein leku erakutsiko zenioke kanpotar bati?



AITZIBER LARRANAGA
15 urte, ikaslea

San Pedro, paraje politxa da, parke ederra umiak eta jolasteko... Udarako atsedeen-leku politxa da han goixan, pasiararako, jateko... Herrixan bertan Leku-Eder, Usuako parkia...




JOSE MANUEL LLONIN
64 urte, jubilatua

Kultur Etxea adibidez. Halere, gauza polit asko dago Elgoibarren, Mintxeta, esaterako. Gainontzean, San Migel, San Pedro eta antzeko auzoak oso txoko ederrak dira.



IDURRE ONEDERRA
25 urte, ikaslea

Plazia, Parrokia, frontoia eta aiuntamientua; hiruren konjuntua asko gustatzen jata. Inguruan San Pedro eta San Lorentzo dia erakusteko modukuak baina batez ere Plazia.



CARLOS FERNANDEZ
52 urte, mekanikoa

Ez dago erakusteko gauza handirik. Beharbada San Pedror a eramango nuke eta Kultur Etxea ez zait gehiegi gustatzen baina, tira. Bertakoa izaterakoan, gauzak ez ditugu gehiegi apreziatzen.




MARIA BORREGUERO
57 urte, etxekoandrea

Herri barrua baino ingurua erakutsiko nioke batez ere, baserriak, mendiak... Halere, Parrokia zoragarria daukagu, Plaza ere bai... Aintzinako monumentuak erakustekoak dira.



MARTIN MENOR
41 urte, okina


Parrokia eta Plaza Handia lehenik eta behin. Kultur Etxea monumentu oso polita da eta mendi inguruak ere ikustekoak dira, San Migel, Karakate... Gauza interesgarriak daude.



Mandiola S.L. Egurrak
Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42





goki eRreformak, s.l.

DEBA KALEA 12
TEL.: 74 42 23
20870 ELGOIBAR

ERREFORMAK
FATXADAK ETA TEILATUAK
OBRAK OROKORREAN

KAROBI
PUB




Tel. 74 06 37
San Frantzisko, 37

GUREA NEURRIRA EGINDAKO LANA DA



- Gure publizitatea EZ DA BOTATZEN.
- BEREHALA iristen gara bezeroengana.
- Elgoibar, Alzola eta Mendaroko 3.700 ETXETARA sartzen gara.
- HAUR, GAZTE eta NAGUSIEK hartzen gaituzte euren eskuetan.
- ERRETRATU ONENEKIN lan egiten dugu.
- 146 ASTEKO ESPERIENTZIA da gure garantia.



BARREN astekaria - Publizitate Saila - Tel. 74 41 12

2.000 pezetatik aurrera

■ II. Idazlan eta Marrazki lehiaketa


Udal Liburutegiak apirilaren 23an Liburuaren eguna dela eta, "II. Idazlan eta Marrazki lehiaketa" antolatu du. Bidaia-istorioen inguruan aritu beharko dute haurrek marrazki zein idazlan lehiaketan. Iaz arrakasta erabatekoa izan zen, 400 bat lagunek hartu baitzuen parte. Lanak orrialde batekoak izango dira gehienez eta apirilaren 23a baino lehenago aurkeztu behar dira Liburutegian. Marrazki lehiaketan lehen mailatik 4.era bitarteko haurrek hartu ahal izango dute parte eta idazlan lehiaketan 5etik 8.era bitartekoek.

■ "Egonaldiak familia euskaldunetan" programa

HABEk euskara ikasten diharduten ikasleentzat euskara landu eta hobetzeko plangintza antolatu du. Etxean ikasleren bat hartu nahi duten familia euskaldunek 4 kidekoa izan beharko dute gutxienez, eta %70etik gorako euskaldun kopurua duten udalerrietan bizi. Programa honetan parte hartu nahi duten familientzako epea irekia dago. Eskabideak apirilaren 27a baino lehen egin beharko dira HABEko bulego nagusian (945-18 95 18).

Hamalau ikasle txinarrez

osatutako taldeari ongi-etorria egin zioten Udaletxeko pleno aretoan joan den apirilaren 1ean Gillermo Garate alkateak, IMHko arduradunek eta AFMko zuzendaria den Alberto Ortuetak. AFMko zuzendarien hitzetan, "Euskal Herriko erreminta makinaren produkzioaren %80a" Elgoibarren egingakoa da". Txinar koordinatzaileak bere aldetik, Txina eta Estatuko ekonomia ministerioen arteko kooperazioan Elgoibar gune inportantea dela adierazi zuen. Eskerroneko hitzen ostean, opariak elkartrukatu zituzten agintariak. MOFTEC, ICEX, AFM eta Eusko Jaurlaritzaren elkarlanari esker IMHra datoren txinarren hirugarren taldea da



oraingoa. Ekainaren 29ra bitartean kontrol numeriko ikastaroa burutuko dute IMHko irakasleen eskutik.



Karakaten

ateratako erretratu hau ekarri digu irakurle batek. Mendi buelta egiteko asmoarekin tontorrera igo eta honako pintada hau ikusi zuen bertan dagoen monolitoan. Berak esan digunez, Plazentziko hildako ETAKide bati omenaldi modura jarri zuten monolitoa.

Garajeak salgai San Roke 12-14an

**ESKAINTZA
BEREZIA
1.000.000 ptatik
AURRERA**

**SARRERA
EGOKIA**



**INFORMAZIOA
ETA SALMENTA:**

**JUARISTI
bulegoa
Ubitarte 2, behea
Tel. 74 13 33
ELGOIBAR**



Pazko egunean kaleetan prozesioan eraman zituzten eliz-irudiak

Jende askorentzat Aste Santuak erlijioarekin zerikusirik ez duen opor sasoia den arren, duela hogeitau urte egiteari utzi zitzaion ohitura berreskuratu nahi izan dute aurten Elgoibarran: herriko kaleetako prozesioak. Erramu Domekan kristau ikasbideko haurrek Jesus Jerusalem-en asto gainean sartu zeneko antzezpina egiten dute urtero. Aurten, ordea, Erramuen antzezpina eta gero, prozesioa egin zen apaiza gurutzarekin prozesioa-

ren aitzinean eta atzetik fededunak erramuak eskuartean. Pazko Domekan Jesukristo eta Amabirjinaren topaketa egitea zen ohitura aurten arte. Joan den domekan, Amabirjinaren eta Jesukristoren topaketa eta gero, aureskuia dantzatu zen eta segidan, San Bartolome kaletik pasatu eta gero, Errosario kalean zehar elizaraino eraman zituzten irudiak prozesioan. Aipatzekoa da prozesioan bildu zen herritar mordo.



Elgoibarko Izarra eta Udalaren arteko

hitzarmena sinatu zuten hilaren 2an Gillermo Garate alkateak Udalaren partetik eta Iñasio Garmendiak kultur elkartearen izenean. 1996an elkarteak antolatuko dituen jarduerak finantziatzeko dirulaguntzak emateko konpromezua hartu zuen Udalak. Elgoibarko Izarrari diru laguntza emateaz gain, BARREN astekariak lehenengo hiru urteotan lortu duen onarpen soziala eta estimazioa kontuan izanik, proiektuari jarraipena ematea hobetsi zuen Udalak hitzarmena sinatuz.

Trinitate jaietako Tanborradarako bilera

Ekainaren 1ean Trinitate jaiak ospatuko direla eta, iaz bezala, nagusien tanborrada antolatzeko asmoa dute herriko koadrilek. Hortaz, datorren asteazkenean, hilak 17, lehen bilera egingo da Kultur Etxean arratsaldeko 7,30etan. Tanborradan parte hartu nahi duten koadriletako ordezkariak bilerara ager daitezten eskatzen zaie. Koadrila bakoitzetik kide bana joanda nahikoa da.

Karakate Bizirik plataformaren zozketa

Joan den martxoaren 30ean Karakate Bizirik plataformak antolatutako Karakatera martxan kanping baten zozketa egin zen. Zerbaki saritua 109 izan da eta ordezkoa, berriz, 401a. Saria jasotzeko epea apirilaren 30ean bukatzen da. Karakateko antenaren aurkako martxan 90 bat lagunek hartu zuen parte. Plataformakideek Karakaten Ertzantzaren presentzia salatu dute "igo ginen auto guztien matrikula zenbakiak hartu eta han geunden pertsonak eta ekintzak bidez grabatu zituzten". Era berean, plataformak antenaren aurkako erreibindikazioak mantenduko dituela gogorarazten du, "Karakate parke naturala izan eta bertan inolako eraikuntzarik egin ez dezaten".

Bandaren kontzertua

Udal Musika Bandak igandean, hilak 14, goizeko kalejiraren ostean kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian. Joko dituzten bost piezen artean, A. Reed-en "El camino Real" obra estrainezko entzuteko aukera izango dute musika zaletuek. Gainontzeko obrak hauexek izango dira: "Fragancias Alicantinas", "La bella Galatea", "Goyescas" eta "La pícara molinera". Zuzendaritza lanetan Jose Antonio Osoro arituko da.

Arturo Andrade:

“Eskultura dastatu eta gozatu egin behar da”

Orenseko Allariz herrian jaio zen orain dela 39 urte. Hiru hilabete zituela Elgoibarrera etorri zen bere familiarekin eta hemen egin zituen 20 urte. Ajustadore ikasi eta horretan jardun zuen fabrika batean bospasei urtez.

Halere, soldadutza egin zuenean, bere bizitzari aldaketa bat ematea erabaki zuen. Elgoibarren zuen lana utzi, Allariz-era itzuli eta egurra tailatzen hasi zen. Gaur egun eskultore profesionala da.

- Eskolarik gabeko artista zara.

- Nik teknika Arte Ederren eskolan beharrean, ajustadore bezala lan egiten jaso nuen. 14 urte nituela hasi nintzen formak lantzen nahiz eta industria mailan izan. Konturatu gabe eskua asko landu nuen eta ustez bi mundu zeharo ezberdinak direnak, industria eta artea, nolabait gerturatzea eta bata bestearen osagarri egitea lortu nuen. Sormena izan ala ez, produktiboa behintzat banaiz, eta hori fabriketan lan egitearen ondorioa da.

- 20 urterekin, dena utzi eta Galiziarra aldegin zenuen.


- Bai, lanak ez ninduen betetzen. Soldadutza egin eta gero, Allarizen bizimodu berri bati ekin nion. Eta ez naiz sekula damutu.

- Ez da erraza artetik bizitzea.

- Niri ez zait zaila egin. Beharbada artista nahiko maniatikoa da eta sarri ez ditu gauza komertzialak egiten eta neurria aurkitu behar da. Batzuetan zure kapritxoak eginez eta bestetan gauza komertzialak, salduko direnak eta dirua emango dizutenak.

- Nola hasi zinen?

- Poliki-poliki. Egurra rekin gauzak egin eta dendaz denda saltzen hasi nintzen. Egurrezko eskulturak



“Ajustadorea izan nintzen eta horrek asko lagundu zidan. Industriako eskulan hotzetik, artista izatera pasa nintzen”

egin eta 20 pieza izan nitue-
nean erakusketa bat egin
nuen eta zorionez, kritikoe-
k hasieratik nire lana gorai-
patu zuten. Gaur egun, enkar-
guko lanak egiten ditut bai
eta nire gustukoak ere. Bidea irekia daukat zorio-
nez eta horrek lasaitasun
handia ematen du.

- Zein materiale erabil-
tzen duzu?

- Musikoak instrumen-
tu guztiak jo nahi lituzke
bakoitzaren soinuz goza-
tzeko. Eskultorearen kasuan
oso antzerakoa da, material
bakoitzak testura berezi bat
du eta batekin egin dezake-
zuna bestearekin ezinezkoa

da. Nik egurra, brontzea,
buztina, zilarra, harria...
material asko landu izan
ditut eta guztiak gustatzen
zaizkit. Gainera momentu
bakoitzean nola sentitzen
zaren kontuan izan behar da
gauza batekin edo besteare-
kin lan egiteko orduan.
Harria astuna da eta ener-
giarekin zaudenean komeni
da lantzea, meloso zaudene-
an, berriz, egurra askoz
epelagoa da...

- Zein neurritako eskultu-
rak egiten dituzu?

- Denetik. Egin berri-
dudan azkena eta garran-
tzitsuena, Koruñako parke
bateko hiru eskultura izan

dira, granittoa eta brontzea
konbinatzen dituztenak, 2
m. altueran x70x70 m.

- Zenbat ordu egunean?

- Zortzi. Artistak atle-
tak bezala, ezin du esan
gaur ez dut ezer egingo,
ezin zara akomodatu erabat.
Etengabe zaude zerbait
pentsatzen eta egiten. Aste-
bukaerak jai egiten saiatzen
naiz, edo aurrez egindakoa
hobetzen. Azken finean,
artista batek inoiz ez du
bere lana erabat ontzat
ematen, beti pentsatzen
duzu hobe daitekeela.

- Elgoibar ala Allariz?

- Biak. Herri kontrajarriak
dira. Allarizen edertasuna
asko zaintzen da eta Elgoi-
bar herri industrialala da,
baina biak behar ditut.
Artista batentzat idela bi
edo hiru herritan bizitzea
da, inon asentatu gabe eta
guztietatik zerbait jasoz.

- Zer da eskultura?

- Tarta baten gainean jar-
tzen den ginda. Dastatzeko,
gozatzeko izan behar da eta
toki aproposan jarri behar
da horretarako.

- Kolore bat? - Kolore
guztiak gustatzen zaizkit,
bel-tza eta grisa ezik.

- Material bat? - Egurra.

- Usain bat? - Luisa bela-
rrarena.

- Hitz bat? - Poza.

- Sentimentu bat? - Kari-
ñoa.

- Eta amets bat? - Norba-
nakoaren askatasuna.

FERISALTSA

Aspaldiko partez txakurkumeak izan

Bost aste izan zituen martxoak. Urte bisies-toa izateak horrelako eta bestelako aldaketak ekartzen ditu. Feria nahiko arrunta izan zen. Beti bezala ganadua zegoen, lore eta landare mordo bat, makinak aukeran eta gure kamarak sarri ikusten ez duen bitxikeria bat ere, txakurkumeak. Artzai txakurrak omen ziren eta bakoitza 15.000 pta.n saltzen zituzten.

Hil honetako gaia zaldien identifikazioa dugu. Izan ere, Diputazioak hala aginduta, apirilean zehar, zaldiak dituz-

ten guztiek identifikatu egin behar dituzte. Gehigarrian argi eta garbi azaltzen dugu gai honi buruzko guztiak.

Horiek batetik, ohi bezala baserria bestetik, eta Jabier

Arrizabalagak kontatutako guztiekin azkenik, apirileko gehigarria osatu dugu. Hurrena maiatza. Eta gero ekaina... Ene! Konturatu orduko uda bertan daukagu.



Ezagutzen al duzu **DEBEMEN?**

Zaldien nortasun agiria

Eusko Jaurlearitzak uztailaren 28ko Aginduaren bidez, zaldia identifikatzearen beharra ezarri zuen. Ondorioz, Euskal Autonomi Elkarteko 15 hilabete baino gehiagoko zaldi guztiek identifikaturik egon behar dute eta Zaldien Identifikazio Liburu baten jabe izan. Liburu honekin, zaldia bere bizitza osoan Euskal Lurralde Autonomoan beste inolako dokumentaziorik gabe libre ibili ahal izango du.

Zaldia identifikatzeko orduan bi taldetan banatzen ditugu: batetik, zaldiketakoak eta bestetik, lanerako eta haragitarakoak. Talde bakoitza identifikatzeko sistema ezberdina erabiliko da:

- **Mikrotxiparen bidez:** zaldiari lepoaren ezker aldean "Mikrotxip" bat ipiniz egiten da, txakurrekin bezala. Hau al baitariak egiten dute eta animalia jabeak al baitariari egiten duen lana ordaindu behar dio. Sistema hau zaldiketako zaldientzat bakarrik erabiltzen da.

- **Nitrogeno likidoaren bidez:** Ipurdian, ilea moztu ondoren, 196 °tara hoztu den zenbakia jartzen zaio. Sistema honek ez du minik egiten eta aurrerantzean toki horretan irtengo den ilea kolore txurikoa izango da, honela zenbakia irakur ahal izango delarik. Sistema hau lanerako eta haragitarako zaldietan erabiltzen da eta jabearentzat inolako kosturik gabe, Nekazal Ganbarako kontroladoreek egiten dute.

Beste toki batzuetan egin eta gero (Deba Garaia, Goierrri, Tolosaldea, Bidasoa e.a.) apirilean Deba Behean ekingo diogu kanpainari. Zaldi guztiak identifikatu behar direnez, zaldiren baten jabe direnek Elgoibarko Nekazal Ganbararekin harremanetan jarri behar dute, identifikazioa noiz eta non egingo den adieraz diezaieten.

Aurrerantzean, egoki identifikaturik ez dauden zaldiei ez zaie inolako Gida Osasun Ziurtagiririk egingo eta identifikatu gabeko animaliak dutenek, honen berri eman beharko dute Nekazal Ganbaran.

INIGO AGIRRE

Abeltzaintza Zerbitzuko albataria



Manuel Roteta, 68 urte
Lertxundi baserria (Aia)

Ez, sekula ez dot euki eta gustatu ere ez zaizkit eitxen. Idixak euki nitxun lehen baina oin hori ere ez, behixak

bakarrik.

Fermin Zubeldia, 60 urte
Munagantxo (Zarautz)

Lehen banakan, kalia esnia partitzeko erabiltzen nuan, astua biharrian zaldixa. Orain traktoria dakat eta zaldirik berriz eukitzeko inungo asmorik ez,




Zertako? Pasiatzeko?
Iñaki Corpion, 53 urte
Betigure baserria (Iurreta)

Ez, ganauan onduran asko jaten dabe zaldixek eta probetxurik ez dabe ematen. Batzuk okelatarako eukitzen dabe baina gitxi pagauta dao. Ostantzian,

lanerako nahixo dot traktoria.

Erramun Beristain, 61 urte
Erlate beheko (Itziar)

Ez dakat zaldirik eta ez dot sekula euki. Astua badakat esnia partitzeko eta ilobantzako ponixa ekarri dou oin, pasiaran



ibiltzeko. Umiantzat jolasa.
Jose Mari Esnaola, 65 urte
Musillo (San Lorentzo)

Ez dakat ba. Lehen euki naban esnia ta kalera ekartzeko, lanian laguntzeko. Gero zahartu ein ginan eta kantzau. Oin kotxia dou eta askoz komoduaua

Karkizano baserria

Martin Iñiguez, Elkanoren ondorengoa izan zena Laysaren espedizioan, Karkizano baserrian jaio zen. Gaur egun bi etxebizitzak osatzen duten baserria erre egin zen 1899. urte inguruan. Garai hartan erreterroak ziren bertako bizilagunak, gaur egungo Etxabe-Juaristitarren ahaideak, eta beraiek berreraiki zuten poliki-poliki. Atarira atera eta bista asko aldatu da azken 20 urteetan. Izan ere, ez baitzegoen ez autopistarik, ez elektrizitate zentralik ez eta industrialderik ere. Bai, ordea, ermita eta kanpa eder bana.

Iaiak aski ezagunak izaten ziren San Antolinen. Mari Terek gogoratzen duenez, “inguru guztietatik etortzen zan jentia eta danak oinez. Zezena egoten zan, erromerixia, jolasak... Demaseko anbientia. Baina, autopistia eiteko ermitia bota egin zaben eta jaixak behe- ra egin zaban”.

Baserrian ortua, zuhaitzak eta etxerako oilaskoak, txahala eta behia bakarrik dituzte, “danon artian eitxen dou piskat, baina ez da lehen bezelako lana”, esan digu Joxepak. Etxerako baino gehiago dutenean, saldu ere egiten dute, “batez ere frutia, asko eukitzen dou eta. Danetik gainera, mahatsa, pikuak, okaranak...”.

Okaranak enbotatu

Felix zalea omen da horrelakoetan. Frutarbola ezberdinak landatu eta haiek hazten ikustea gustatzen zaio, “eta gero, sobratzen dan frutia askotan enbotau eitxen dot. Urakin eta azukriakin ‘baño marian’ jarri eta oso goxua geratzen da”. Iaz, gainera, bestelakorik ere probatu zuten, “normalian, urtian



Martin Iñiguez espedizio gizon ospetsua Karkizano baserrian jaioa zen.

behin hiltzen dogu txahala eta haren okelia konjelau eta urte guztirako eukitzen dou. Iaz, okarana, Klaudia ugari euki genduan eta dana ezin jan ez eta saldu ere. Gizonari okurridu jakon konjelatzia. Eta halaxa egin genduan.

Ondiokan ere okarana jaten gabiz” azaldu digu Mari Terek. Garai batean txakolina egiten zuten eta behin edo behin ardorik egin izan du Felixek.

Afizio ezberdinak

Mari Tereri loragintza gustatzen zaio, “jeraniuen artian oso ondo pasatzen dot. Oin udaberrixa ailegatu dala, berriz ere segitxuan hasiko naiz lorekin batera eta bestera”. Halere, badute konpartitzen ez duten afizo bat, Mari Tereren hitzetan, “bertsuak gustatzen jataz baina trikitixakin aspertu eitxen naiz. Senarrari, en kanbio, asko gustatzen jako, radixuari pegauta egoten da pieza bat eta beste bat entzun. Neri danak berdinak beixintzen jataz”.

Traktore eta bestelako makinei esker lana asko erraztu da baserrian, “ez da lehen bezela. Akordatzen naiz dana eskuz ein bihar izaten genduanian. Lan asko, gaizki eginda eta diru gitxi ematen zaban gainera”, jakinarazi digu Joxepak. Karkizaorainoko bidea nahiko aldrebesa zen lehen. Gero, argia pini eta asfaltatu egin zuten. Bi kotxe dituzte etxean, “derrigorrezkuak ez dia, gu kaletik nahiko gertu gaude eta. Baina ohitxu eitxen zera eta gero, oinez jutiak alperra ematen dizu”.

KARKIZANO

- **AUZOA:** San Antolin
- **LUR HEDADURA:** 5 hektarea.
- **BIZILAGUNAK:** Josefa Juaristi, 82 urte; Felix Juaristi, 55 urte, Mari Tere Etxabe, 51 urte; Aitor Juaristi, 24 urte eta Unai Etxabe, 17 urte.
- **ANIMALIAK:** behia, txahala eta oliaskoak.
- **PRODUKTUA:** ortuko gauzak eta frutarbolak, pikuak, sagarra, okaranak, mahatsa...

MALDAN BEHERA JOLASEAN

Umetan irudimena gauza handia da. Edozerk balio du gustura jolasean ibiltzeko. Hori egiten zuten karkizano baserrian ere. Bertakoak ezezik, lehengusu eta lehengusinak, lagunak eta beste auzokideak elkartzen ziren kuadrilan, “han ibiltzen ginan, ezkutaketetan, ‘a primeras’ edo beste edozertan orduak eta orduak”. Eta, baserritik beherako zelaian, behin baino gehiagotan, “lurrian etzan eta maldan behera bajatzen ginan”. Gaur egungo umeek duten jolas elektronikorik edo telebistarik ez zuten ezagutu orduko haurrek, baina beharrik ere ez zuten izan. Irudimena askotan sakurik emankorrena izaten baita.

Jabier Arrizabalaga:

“Alkartasuna da sanmigeldarron markia”

Orain dela 50 urte Belarreta baserrian jaio zen, San Migelen, eta han bizi da oraindik ere. Udaletxean baserritarren zinegotzia izan zen eta hirugarren aldiz aukeratu dute auzoko alkate. Beste gauza askoren artean, Arrateko San Isidro eguneko eta Gabon Zahar feriako azokaren bultzatzaile eta sortzaile izan zen. Gaur egun, lanak hala behartuta, asko bidaiatu beharra dauka. Urtean 50.000 km. egiten ditu kotxez eta aitortu digunez, gau asko hiri ezberdinetako hoteletan pasa eta gero, ilusiorik handiena, zapatua iritsi eta baserriko ortuan aritzea da.

- Hirugarren aldiz San Migeleko alkate. Politiko ona al zara?

- Neri baserriko temak gustatzen jataz. Bestela, Udaletxian egon eta beste zeozer ipiniko bazien, etxetan gustauko. Neri gustatzen jata na baserri mundua da. Hor jaixo nitzan eta hor naiz bizi eta horren alde edozer eingo neuke.

- Nola izaten da aukeraketa?

- Edozein botaziotan bezela, urnia jartzen da eta auzotar bakoitzak berak nahi dabanari ematen dio botua. Gehixen lortzen dabana izendatzen da alkate.

- Uste beste gauza egin al dituzue?

- Ahalegindu gera. Lortu dogun gauzarik haundixena frontoia izan da. Oin edozer tarako han dao, gure seme-alabak era han lagata trankil

geratzen gera. Jaixak baditxugu, oin liburutegi txiki bat ipintzen ari gera...

- Eta aurrera begira?

- Nik, kalia lan egin arren baserri bizi direneri laguntzak ematia nahiko neuke. Kalia lan eitxiarren askok ez dabe laguntzak jasotzen baserri berritzeko eta zeozer ein bihar da, azkenian gure ingurua eta paisajian parte da eta.

- Nortasun handiena duen auzoa al da San Migel?

- Ez dakitx. Egixa da alkartasun haundixa daula gure artian. Lokala dakagu eta hori oso inportantia da. Mahai baten bueltan elkartzen gera eta han esaten dia esateko guztiak. Alkartasunak indarra ematen dau eta hori da San Migelek daukan markia.

- Sanmigeldarra ala elgoibartarra?



- Sanmigeldarra, dudaripe.

- San Isidro jaiaren sortzaile izan zinen.

- Bai, lehenao ere eitxen zan baina neri etxatan gustatzen, ez zan herrikoia. Egun batian Mariano Loiola zana, Eibarko konzejal bat eta ni alkartu eta Arraten zeozer eitxia pentsatu gendun. Ondo atera zan eta gaur arte.

- Egun horretan, jai.

- Beti, ez dot sekula hutsegin. Bertako girua gustatzen jata, jai girua, jendian artian egoten dan hartuema-na.

- Gabon Zahar feriako azokan ere baduzu parterik.

- Bai, konzejala nitzan orduan. Epoka hartan ga-

nauan ferixia bakarrik eitxen zan eta pentsau gendun berdurena eta frutena ere ipintzia. Auzuetako alkatiak alkartu ginan eta bakoitzak bere produkturik onenak eraman zitxun. Danak mahai baten ilaran jarri eta hori izan zan lehenengua.

- Begira orain.

- Bai, asko haunditxu da eta fama haundixa hartu dau. Harro egotekua da. Pozik gaude.

- Azken galdera, Jabier. Elgoibarko alkate bazina?

- Jende gaztiantzat lokalak ipiniko nitxuzke bakoitzak bere negoziua hasteko tokixa euki zezan. Gaur egun gauzak ez daude bat ere errazak eta lagundu ein bihar jakue.

AZKUE
Antonio Ansola Arrieta

Pentsuak

Etxean egindako pentsuak

GENSA

Ubitarte, 1 (Elgoibar)
Tel. 74 07 88 / 74 02 89

KEMEN Belardenda

MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA REFLEXOTERAPIA

San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

Mari Vazquez

Ametsa tabernakoa



- **Bazkaltzeko, ardoa ala ura?**
- ▶ Normalean ura baina behin edo behin edaten dut ardoa ere.
- **Kafe hutsa ala esnearekin?**
- ▶ Hutsa.
- **Norekin hartuko zenuke gustura kafea?**
- ▶ Lagun on batekin.
- **Zer ospatuko zenuke topa eginez?**
- ▶ Seme-alaben urtebetetzea, Gabonak, edozein egun berezi.
- **Zure bizitzako zein une izan da azukrea bezain gozoa?**
- ▶ Seme-alaben jaiotza.
- **Platerean geratzen den azeituna norentzat?**
- ▶ Inork hartuko ez balu nik neuk jango nuke.
- **Elgoibarko zein txoko igoko zenuke garagardoaren aparra bezala?**
- ▶ Beti gustatu izan zait Plaza Haundia eta San Pedro ere toki polita da.
- **Nori sartuko zenioke zotz bat erdi-erditik?** ▶ Inori ere ez.
- **Garagardo horia ala beltza?** ▶ Horia.
- **Eta gizonetzkoak?** ▶ Ez dakit baina aukeratzekotan beltzarana.
- **Elgoibarko zein osagairekin egingo zenuke rebuelto bat?**
- ▶ Jaiekin, San Bartolomeak, Gabonak bai eta gabonetako jaiotzarekin ere.
- **Ameslaria ala errealista?** ▶ Amets egitea asko atsegin dut.
- **Bizitzako zerekin mozkortuko zinateke?** ▶ Udako opor on batzuekin.
- **Edateko gorria ala beltza?** ▶ Gorria nahiago.
- **Eta jazteko?** ▶ Beltza ez zait gustatzen, nahiz eta askotan jantzi.
- **Zure bizitzako ametsa?** ▶ Zahartzarora iristea, nire seme-alabak ezkontuta ikustea eta bilobak izatea.
- **Juerga baterako edaririk aproposena?** ▶ Norberaren gustukoa.
- **Eta "ajerako"?** ▶ Lotara joatea onena.
- **Esna zaudela ere izaten al duzu ametsik?** ▶ Bai, sarri.

IRATI AGIRREAZALDEGI

ASTE SANTUA,

DOINUA:

hamarreko handia

Ikasle asko tentsio handiz garai eskasa delako atsalde dena ikasten pasa behar esaminerako aproba edo ez aprobatu sortuz makina bat gako dena ahaztuta gogo bizia oporretara juteko ez dakit zenbat duen astetik santutikan behintzat asko

Katolikoek prozesioan jarriz beraien arreta Ostegun Santu Ostiral Santu urteroko berriketa gauza onerako ez al dago hau santu gehiegiz beteta behintzat ospatu jaiak dira ta jarriz grina ta apeta aprobetxatu oporrak motxak izaten dirade eta.




XABIER ASTIGARRAGA



Martxoaren 28an, 55 urte zituela, hil zen **INAKI MURUA GABILONDO**ren sendiak bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana. Era berean, gogoratu apirilaren 15etik 19ra bitartean bere aldeko errosarioa eta meza izango dela Parrokian.



Ikurriña bakarrik ageri zen Udaletxeko balkoian Aberri egunean



Martxoan izan zen plenoan HBk (EMA, Herriaren Alde eta Euskal Batasunarekin batera) bi puntuz osatutako mozioa aurkeztu zuen. Alde batetik, Aberri egunean Udaletxeko balkoian Ikurriña bakarrik jartzea eskatzen zuen eta bestetik, herritarrei dei egitea bakoitzak bere etxean gauza bera egin zezaten. EAJ eta EAK aldeko botua eman eta mozioa onartu egin zen. Ezker Batuak lehen puntuaren alde botatu zuen baina bigarren puntuan abstenitu egin zen. PSE abstenitu egin zen eta PP aurka agertu zen.

Domekan, hilak 7, ospatu zen Aberri eguna eta Udaletxean Ikurriña bakarrik ageri zen. Etxeetako balkoietan, berriz, apenas Ikurriña bakar batzuk ikus zitezkeen, orain urte batzuk zegoen ohitura galtzen dagoen islada dirudi.


Biztanleen errolda

Apiril eta maiatza bitartean Elgoibarko biztanleen eta etxebizitzaren errolda berrikotuko da. Horretarako etxez etxe inkestak egingo dira. Aipatu inkestak egiteko 11 pertsona aukeratuko ditu Udalak. Izena eman nahi duenak hilaren 13ra arte Udaletxera jo beharko du.

Aurkezpena

Luis Ecenarro Osoro jaunak idatzitako "Elgoibar: De las ferrerías a la máquina-herramienta. (Maestros rejeros, relojeros, armeros)" liburuaren aurkezpen ekitaldia eta "Elgoibar: atzo eta gaur" bideo musikatuaren proiektzioa.

1996ko apirilaren 16an
19,30etan
Herriko Antzokian



kutxa fundazioa
fundación

Altzola

■ Etxe eta lonjak Deba ibaiaren eskuin aldean kokatuak zeuden. Kasu batzutan ibaira jaisteko harmailak eta txanelak lotzeko zirgiloak kontserbatzen dira oraindik.

■ Ibaiaren ezker aldean, baratzak, etxe bakarren bat eta zubi ondoan San Anton eliza eta ospitala zeuden. San Anton eliza egon zen lekuan gero Bainuetxeko sukursala egon zen eta egun Zubia jatetxea aurkitzen da. Elizan egiten zituzten burdinoletako arduradunek ohizko bilerak.

■ XVI. mendearen bukaeran, ibaiaren ezker aldean beste eliza bat eraiki zen bertako semea zen frai Domingo Altzola apezpiko domingotarrak Guadalajaratik (Mexiko) bidalitako oinplano eta diruari esker.

■ XVII. mendearen lehen erdi

aldean, eliza zena parroki bilakatu zen, Elgoibarkoaren menpe. Erabaki honek istiluak sortu zituen Elgoibar eta auzoaren artean.


■ Ermita bat ere izan zen, "Kontzezio" Andra Mariarena. Berau Olaetxea dorretxearen ondoan kokatzen zen, ibaiaren eskuin aldean. 1860. urte ingurutik ez zen kulturik ematen eta gerra amaitu arte, ostegun eta ostiral santuko prozesioak bertaraino iristen ziren.

■ Ermitaren hormak etxe bat eraikitzeko aprobetxatu ziren, "Kontzezonekoa", eta 1953an, errepedea zabaldu zenean bota egin zuten. Ermita aspaldi desagertu arren, errepede alboko harmoran itsatsia oraindik ere harrizko gurutze bat kontserbatzen da.

PELLO ARRIETA



Gillermo Gorostiza Osoro (1895-1966)



- 1895eko otsailaren 10ean jaio zen.
- Pelukero edo bizargina zen.
- Ileapaindegiko lanetan jarduteaz gain, alpargatak ere josten zituen. Alpargata kontuak zirela eta, Cubara bidaiara egin zuen ezkondu aurretik.
- 1936. urte aurretik "Zeruko Argia" aldizkariko berriemale zen "Aixerixa" (azeria) gaitzizenez izenpetzen zuelarik. Oso euskaltzalea zen.
- Gerraostean Correo Español-El Pueblo Vasco egunkarian hasi zen berriemale lanetan, eta urte asko eman zituen herriko gorabeherak kontatzen.
- Gerra garaian Bizkaira alde egin behar izan zuen. Derioko Esperanza y Cía lantegian egon zen lanean Elgoibarren lau seme eta bost alaba eta emaztea utzi behar izan zituelarik. Hauetariko bat hil egin zen.
- Bitxikeria modura zera esan: Azkoitia-Elgoibar lineako autobus gidaria zen Felipe Arzallus-en (Xabier Arzallus-en aita) lagun mina zen arren, ezagunak ziren bien arteko eztabaidak.
- 1966ko maiatzaren 6an hil zen.

Martxoaren 23an, 87 urte zituela, hil zen DOMINGA ZALDUNBIDE MALLABIAREN sendiak bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



MOTZAK

Gorka Sanchez Espainiako Txapelketan

Gorka Sanchez elgoibartarrak Sabadellen izan zen Espainiako Kros Txapelketan parte hartu zuen 5.200 metrotako distantzian. Saillapen orokorrean 45. postuan geratu zen, eta selekzioen saillapenean, Euskadiko taldean parte hartu zuenez, hirugarren lekuari dagokion brontzezko domina jaso zuen. Bestetik, pistako denboraldiari dagokion lehen lasterketan Euskadiko laugarren izan zen Gorka eta Gipuzkoako bigarren 3.000 metroko distantzian. Aurten kadeteen lehen urteko mailan korritzen ari da elgoibartar gazte hau.

Haur Krosaren III. edizioa hil honen 21ean

Datorren domekan, hilak 21, Kilo-metroak 96ko batzordeak antolatuta, Haur Krosaren III. edizioa burutuko da herriko kaleetan zehar. Zazpi eta hamalau urte bitarteko haurrek hartuko dute parte kategoria ezberdinetan banatuta. Lasterketak eguerdiko 12,15etan hasiko dira Plaza Handian.

Morkaikoren oharra

Morkaiko Mendizale Elkarteak bazkide kuota eskuz ordaintzeko azken eguna ekainaren 2an amaituko dela gogorarazi nahi du. Bankutik ordaintzen dutenei apiril eta maiatzean pasatuko zaie kuota. Erruren bat balego egoitzatik pasatu asteazken eta ostiraletan ohiko orduetan.



Iñaki Ulazia

"Mendixa ezagutzia ematen du ziurtasuna"

■ **Mendizalea txikitatik?** - Txikitant gurasuekin ibiltzen nitzan inguruan, Karakate, Kalamua; eta Ondarrura ere juten ginan sarritan oinez.


■ **Gogoan duzu lehenengo mendia?** - Inguruko edozein izango zala uste dot, Kalamua, Karakate...

■ **Morkaikorekin ibilitakoa izango zara.** - Gaztetan geure kasa ibiltzen ginan asko; Morkaikokin bai, Pirineoetara batez ere.

■ **Gaur egun Morkaikoren zuzendaritzan zaude.** - 17 urtekin zuzendaritzan egon ginan ni eta beste batzuk. Gero utzi egin gendun eta kanpotik estudixatzetik bueltau ginanian berriro sartu nitzan zuzendaritzan baina egixa esan, denbora handirik ez dakat. Gaur egun batez ere federatuen kontua eramatea da gure ardurarik nagusiena, Eskalada txapelketa antolatu, irteerak egin...

■ **Urrutien nora joan zara?** - Alpeetara. Lau milako batzuk ein ditzut han. Leku politxa da.

■ **Mendi altuek ala zailek erakartzen zaituzte?** - Denborada batzuetan gora eta gora juteko gogua daukazu eta beste batzuetan zailtasuna bilatzen dozu. Baina alturia eta zailtasuna ez dia dana. Alpietan adibidez, Castore mendixa oso politxa iruditxu zitzatan eta ez dauka inungo zailtasunik.



■ **Mendian, noraino arriskatzeko prest?** - Glaziarretan beti ona izaten da sokiakin jutia. Arriskua beti dao. 40-50 metroko pala baten glaziar lau batian baino seguruago jun zaitzezke. Elurra ondo baldin badao ez dao problemarik.

■ **Sustorik izan al duzu?** - Behin anaixa aldapa batetik jausi eta bixak jun ginan behera. Handik 50 metro-ra gelditxu ginan. Susto ederra.

■ **Mendizalearen aseguruik onena?** - Elurretan pioleta eta kranpoiak beti eruan bihar diaz. Askotan perezia ematen du seguruak, sokak edo kranpoiak erabiltzia oso zaila ez dan leku batian. Arriskua etortzen da denborarik ez galtziarren ziurtasuna ematen dizuten tresna hoiek erabiltzen ez diazenian. Mendizalian segurorik onena mendia ondo ezagutzia da, igo bihar dezun mendixabatez ere.

■ **Igaro al duzu oporraldiren bat mendia ez den tokiren batean?** - Oin Picos de European egon naiz eta ahal dala beti igarotzen det denbora libria mendixan.

• Adina: 32
• Mendikate bat? Andeetara juteko gogua daukat.
• Mendian ibiltzeko urte sasoi bat? Edozein
• Zein mendi ikustea nahiko zenuke etxetik? Pinurik gabeko edozein.

karkizano
San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49

Arrieta
moda

San Bartolome 18
☎ 74 08 49

ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
behea
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behe
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

Indurain eta Rominger Elgoibarren izango dira maiatzean Euskal Bizikletan

Datorren maiatzean jokatuko den Euskal Bizikletan munduko onenak diren Indurain, Rominger, Zulle eta Pantanik lasterketan parte hartuko dutela jakin ahal izan dugu eta hortaz, Elgoibarren ikusteko aukera izango da. Euskadiko Itzuliaren bigarren etapa, maiatzaren 22koa, Eibarren hasi eta Elgoibarren amaituko da, Mintxetan hain zuzen. Hurrengo egunean, maiatzak 23, Plazatik aterako dira txirrindulariak eguerdira aldera Ondarroara bidean. Kaleak txirrindulariez josita egongo dira egun horretan eta idoloak gertutik

ikusteko aukera paregabea izango da.

Euskadiko Bira igaro zen Elgoibartik

Euskadiko itzuliaren bigarren etapa eguerdiko 2ak aldera Elgoibartik igaro zen. 634 errepide nazionaletik pasatu eta gero, Txan-kakua zubian bira eman eta San Migel alderantz gora egin zuten txirrindulariek. Segundo batzuez baino ez ziren izan, maillot koloret-suak ikusi eta idoloen aurpegiak identifikatzeko astirik gabe igaro ziren txirrindulariak. Guk Metal-kuako errebueltan gora harrapatu genituen San Migelera bidean.



MOTZAK

Plater tiraketa San Pedron zapatuan

La Unión Ehiza eta Arrantza elkarteak herritarrentzat bakarrik izango den plater tiraketa txapelketa antolatu du. Hiru egunetan, apirilaren 20an, 27an eta maiatzaren 4an izango dira tiraldiak. Izen-ematearen zenbatekoa 1.500 pta.koa da bazkideentzat eta 2.500 pta.koa gainontzekoentzat. Behar-beharrezkoa izango da parte hartzeko tiro litzentzia edukitzea.

Txirrindularien emaitzak

Lagun taldeko txirrindulariek fin aritu ziren zapatuan Urnietan antolatu zen lasterketan. Bigarren urteko kadeetan Arkaitz Martinez (Ciclos Iñigo) izan zen txapelduna eta talde bereko Jon Oregi txapeldunordea. Arkaitz Martinezek gogor hasi du denboraldia. Lasterketa irabazteaz gain, mendiko sailkapenean ere lehenengoa geratu zen. Taldekako sailkapenean Ciclos Iñigo etxearen izenean korritzen duten Lagun Taldekoak geratu ziren garaile.

KIROL

EMAITZAK

Eskubaloia

Ordizia 9 - Pagoaga Elgoibar 18
(Kad. neskak)
Elgoibar 24 - Hondarribi 22
(Kad. mutilak)

AGENDA

Futbola, Mintxelan

Larunbata, 13

12,00 Urki A - S. Patricio (Jubenilak)

17,00 Haundi - Mondra

Igandea, 14

10,00 Beti Sutan - Groseko (2. erreg.)

12,00 Gazteak - Zarautz (Jubenilak)

15,30 S.D. Eibar - Anaitasuna (1. erreg.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 13

16,00 Elgoibar - Aloña Mendi

(Kad. neskak)

17,30 Elgoibar - Arrasate

(Kad. mutilak)

Pilota, Ikastolako Frontoiari

Asteartea, 12 arratsaldean

HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Anoeta - Elgoibar

Kilometroetako **Beder** eta **Sei** maskotak aurkeztu zituzten “Gure dantzak” ikuskizunean



Kilometroen batzorde antolatzaileak urriaren 6ra bitartean prestatzen diharduen ekitaldien artetik, ikuskizun garrantzitsua izan zen martxoaren 31n Plaza Handian egin zen dantza saioa. Euskal Herri osoko herrialdeetatik etorritako dantza taldeen ikuskizuna aitzaki, Kilometroen maskotek, “Beder” eta “Sei”k, lehen agerraldi publikoa egin zuten herritarren aurrean. “Banoa, banixe, euskaraz bai horixe” lemapean izango diren Kilometroak 96 jaia- ren trena martxa bizian hasi den seinale.

Herriko bazterrak kalejiran

alaitu eta gero, Plaza Handian bildu ziren dantzari, txistulari eta antolatzailak ekitaldiari hasiera emateko. “Beder” eta “Sei”, Kilometroen maskoten aurkezpena eta gero opariak banatu zitzaizkien Eltziegoko, Portugaleteko, Tuterako, Urdiñarbeko eta Elgoibarko dantza taldeko zuzendariei. Tuterako Udal Dantzarien eskutik hasi zen saioa, ondoren Arabako Eltziegoko Dantza Taldearen, Elgoibarko Haritz taldearen, Portugaleteko Elai-Alai taldearen eta Zuberoako Urdiñarbeko dantzari- ren txanda izan zelarik.

Jaialdiak kasik bi ordu iraun zuen arren, ikusleak bukaerara arte geratu ziren. Portugaleteko Elai-Alai taldekoek txalo berezia jaso zuten bikain aritu izan zirelako eta Elgoibarko Folklore Jaialdia beraiei esker antolatzen delako. Aipatzekoak dira jaialdiaren antolamendu bikaina eta dantza ikuskizunaren kalitatea.



Beder eta Sei Kilometroetako maskotak bere sortzailea den Nerea Etxeberriarekin.



Bizkaiko dantzen ordezkariak Portugaleteko Elai alaiakoak izan ziren.



Urdiñarbeko taldeko dantzariaren saioaren une bat.



Arabako Eltziegoko Dantza Taldearen saioa.



Tuterako Udal Dantzariak.



Elgoibarkoek Gipuzkoako dantzak erakutsi zituzten.



Errenteriako Andra Mari abesbatzaren kontzertua hilaren 20an

Datorren larunbatean, hilak 20, Errenteriako Andra Mari abesbatzak San Bartolome parrokiaren abestuko du Kilometroen ospakizunen barruan. Bi zatitan banatutako kontzertua eskainiko dute Brahms, H. Eslava eta beste musikari atzerritar eta euskaldunen obrak abestuz. Euskal musikagileen lanez osatutako iraupen luzeko zazpi diska grabatuak dituzte eta beste zenbait musiketxerekin ere beste lau diska-

ren garbaketan parte hartu dute. Euskal Herriko eta atzerriko lehiaketen aritu izan dira, sari ezberdinak jasoaz. Honez gain, jaialdi eta musikaste eta ziklo ugarritan abestu dute. Aipatzekoa da euskal musika lantzen dutela batez ere; hau dela-eta Errenterian antolatzen den Musikaste Euskal Musikagileen Astea sortu zuten. Kontzertua iluntzeko 8etan hasiko da.



Luis Ezenaroren Liburuaren aurkezpena

Asteartean, hilak 16, Luis Maria Ezenarro Osoro apaiz elgoibartarraren liburuaren aurkezpena egingo da Herriko Antzokian arratsaldeko 7,30etan. Kutzak kaleratu du liburua, "Elgoibar: de las ferrierías a la máquina herramienta (maestros rejeros, relojeros y armeros)" izenburukoa. Ekitaldian jende ugari biltzea espero dute eta aurkezpena eta gero Juantxo Egañak egindako "Elgoibar: ayer y hoy" izenburuko bideoa proiektatuko da. Elgoibarko historiari buruzko lan mardula da Kutzak aurkezten duena, urte askotako bilduma historikoa. Elgoibarko industriaren sorrera eta bilakera aztertzen ditu Ezenarrok gaur egungo erreminta makinaren sasoira arte. 80 urte dituen apaiz honek Elgoibarri buruzko artikulu historiko ugari argitaratu ditu.

Markeliñeren "La Garbo S.A." hilaren 19an

Datorren ostiralean, hilak 19, Markeliñe antzeztaldeak "La Garbo S.A.-Kale Gorrian" izeneko lana antzeztuko du Herriko Antzokian Udalak hilero antolatzen duen antzerki saioen barruan. Antzerki bisuala, testurik gabekoa, antzezlearen gestualitatea lantzen duen obra da.

Ezuste, estetika eta gestuez baliatzen dira Markeliñe antzeztaldekoko ikusleari bere mezua helarazteko. Gaur egungo bizitzari lotutako istorioa da, edozein pertsonaren esperientzia izan daitekeena. Protagonistak "La Garbo-

sa" garbiketa enpresan lan egiten duten bi kale-garbitzaile dira. Erratza eskuan eta karritoarekin, bizitzak zaborraren kolorea du. Hala ere, ez zaie umorerik eta ironia punturik falta. Egun batean zoritzarreko berri bat jasoko dute: garbiketarako makina berri bat erosi dute lantegian.

Antzezlan honek Azpeitiko XIII. Antzerki Jardunaldietan ikuslegoaren eta epamahaikoen saria jaso zuen. Saioa gaueko 10,30etan izango da Herriko Antzokian. Sarreraren zenbatekoa 500 pta.koa da 300 pta.koa Gazte Txartelarekin.



Borja Uriarte:

"Pink Floyd-en kontzerturako
30 trailer deskargatu genituen"

25 urte ditu. Zuzenbidean lizentziatua da eta aurten Bergaran prokuradore bulegoa irekitzekotan da. Sokorrista ikastaroa egin zuen eta horretan ere diardu lanean Olaizaga polikiroldegian. Halere, gure artera ekarri badugu, arrazoia bestelakoa da. Izan ere, ikaskide baten bidez, hainbat kontzertutan eskenatokiak montatzen aritu izan da Borja.

- Kontaiguzu. Nola hasi zinen eskenatokiak montatzen?

- Lagun baten anaiak promotora batean egiten zuen lan eta kontzertu handiak izaten zirenean jendea behar izaten zuten eskenatokiak montatu eta desmontatzeko.

- Zein talderen eskenatokiak montatu izan dituzu?

- Lehenengoa Dire Strait izan zen, gero, U2, Aerosmith, Bryam Adams, Bon

Jovi eta abar izan dira. Azkena Pink Floyd-ena izan zen.

- Muntaia handia izaten da, ez?

- Izugarria. Ikaragarria da zenbat jende mugitzen den ikustea. Batetik, taldearekin etortzen den jendea dago, sukaldariak, manager-ak eta abar eta bestetik, bertakoak. Guztira 100 pertsona baino gehiago mugitzen dituzte kontzertu handiek.

- Lan gogorra al da?

- Nahikoa. Onena ingelesa jakitea da. Ingelesa dakitenez itzultzaile lanak egiten dituzte, taldearekin datozenek esandako aginduak itzultzen dizkigute besteoi.

- Alde handia al dago talde batetik bestera?

- Bai. Pink Floyd-ek 30 trailer ekarri zituen. U2k 10 ekarri zituen, atera kontuak!

- Egoten al da aukerarik taldekideekin harremana izateko?

- Oso gutxi. Zure ondotik pasatzen ikusten dituzu baina besterik ez. Aerosmith-eko abeslaria izan zen gurekin berba batzuk egiten baina besterik ez.

- Mania asko al dituzte?

- Istorio horiek ez dakizkit gehiegi. Esate baterako Dire Straitekoak entsaiatzen zeudenean ez zuten inor egoterik nahi. Aerosmith-ekoa belodromoan saltaka aritzen berotzeko, Bryam Adams oso

txikia da...

- Eta anekdotarik?

- Pantera taldearen kontzertuan garagardoz betetako edalontziak botatzen zituzten eta esan zuten, garagardoa ezezik, txiza ere ba omen zegoen edalontzietan.

- Oso fetitxista al da jendea?

- Kontzertua amaitzen denean, jende asko etortzen da gauzak eskatzera, bateriako makilak, puak... Horiek guztiak aldatu egiten dituzte kontzertu bakoitzean eta jendeari ilusioa egiten dio eskuratzeko.

- Zein kontzertutan egon nahi zenuke?

- Rolling Stones-enean.

- Gutxien gustatu zitzaizuna?

- Pink Floyd.

- Eta gehien?

- Aerosmith. Ez zitzaidan gehiegi gustatzen baina eskenatoki gainean izugarri irabazten dute. Gainera, abeslariaren jarrera oso garrantzitsua da eta oso ondo kontaktatu zuen jendearekin.

- Dena izaten al dute neurtua?

- Bai, dena. Sarreran euskaraz esaten dituzten hitzak idatziak daude, bukaerako bis-etan joko dituzten abestiak ere...

- Beste mundu bat da, ez?

- Dudarik gabe. Ezin da sinetsi pertsona horiek nola zirrarratzen dituzten milaka entzule. Behin edo behin, teloneroak amaitu eta gero gauzak prestatzera igo izan naizenean eskenatokira, harridura geratu izan naiz behean egoten den jendetza izugarria ikusita. Musikak sortzen duena jendearengan harrigarria da. Eta musika taldeak, abeslariak eskenatoki goian sentitu behar dutena... hitzez ezin da adierazi.



Garajeak

- ❖ Garaje ERDI-ITXI bat saltzen dut pista beltzean. ☎ 74 00 39
- ❖ Garaje ITXI bat saltzen da Arregitorren. ☎ 74 30 81
- ❖ Garaje ITXI bat saltzen dut P. M. Urruzuno 12-14an. ☎ 74 22 00 gaueko 9etatik aurrera

Lana

- ❖ Era guztietako GARBIKETAK egingo nituzke. ☎ 74 15 42

Etxebizitzak

- ❖ Etxe bat saltzen dut errosario kalean. ☎ 74 20 09 (gauez deitu)
- ❖ Etxe bat alokatzen dut. ☎ 74 16 93
- ❖ Jantzitako pisu handi bat daukat alokatzeko. ☎ 74 04 75
- ❖ Etxebizitza bat alokatzen da. Errosario kalean 9-1. Amueblatua. Txikia. 2 logela. ☎ 74 09 74 Dolores

Salerosketak

- ❖ 80ko bi ohe dituen armairu salgai. Hau logelarako aproposa. Egoera oso onean. ☎ 74 22 88
- ❖ Liburuentzako ARMAIRU BAT eta BI LOGELA saltzen ditut. Egoera oso onean. ☎ 74 15 86 (8etatik aurrera)
- ❖ LOGELA BAT saltzen dut. Bi ohe 1,20koak, armarioa eta mesila. Egoera onean. ☎ 74 16 77 Kontxi (goizez)
- ❖ HAIZE BEROKO ARROPA SEKADORA saltzen dut. Oso gutxi erabilia. 15.000 pta. ☎ 74 33 41 gaueko 8etatik aurrera
- ❖ Bigarren eskuko ARGAZKI KAMERA bat saltzen dut. PRAKTIKA BX20. 15.000 pta. ☎ 74 41 12 Jasone

Partikularrak

- ❖ OHoko Klase partikularrak ematen ditut Mendaron. ☎ 75 51 04 Ana (Arratsaldez)
- ❖ Ingelesko klase partikularrak emateko pertsona bat behar dut arratsaldez. ☎ 74 22 27

Agurrak

- ❖ Nahiz eta pixkat berandu izan, zorionak Gari eta ea aurten ere primeran pasatzen dugun bazkarian. Zure lagunak.
- ❖ Hilaren 14an urteak betetzen dituen Ramoniri ZORIONAK bere hiloba Iosuren partez.
- ❖ Zorionak gaur, apirilak 12, urteak egiten dituen Juli Zendoiarri. Bere familiaren partez.
- ❖ Zorionak apirilaren 9an urteak egin zituen Miren Arrieta Odriari. Zure familiaren partez.
- ❖ Zorionak Unai Zulaika "Futbolista jubilatuari" apirilaren 10ean 25 urte egin zituelako. Zaloa Fuentes.
- ❖ Zorionak hilaren 10ean mende laurden bat betetzen duen Unairi.
- ❖ Zorionak Itsasneri hilaren 9an 7 urte bete zituelako. Julen, Sergio, Laura eta Koldo.

Bestelakoak

- ❖ San Frantzisko kalean ZILARREZKO KATE BAT aurkitu eta Udaltzaingora eraman nuen.
- ❖ ERRENTA AITORPENAK egiten ditugu. ☎ 74 16 88 Itziar ☎ 74 07 61 Miren

Jaiotakoak

- ▶ Haizea Ajubita Egaña, martxoak 4
- ▶ Andoni Hernandez Egaña, martxoak 6
- ▶ Iker Calvo Uzkudun, martxoak 9
- ▶ Julen Perez-Cortes BaKaiKoa, martxoak 16
- ▶ Andoni Arrillaga Zabaleta, martxoak 17
- ▶ Haizea Beristain Ariznabarreta, martxoak 19
- ▶ Iria Andrade Urain, martxoak 24
- ▶ Leire Melgosa Ezenarro, martxoak 26
- ▶ Julen Vigarra Fernandez, martxoak 29

Ezkondutakoak

- Jesus Mari Makazaga Eizagirre eta M. Ascen Nuñez Gañan, martxoak 30

Hildakoak

- Jesus San Martin Totorikaguena, 65 urte (Martxoak 29)
- Martin Aldazabal Arrillaga, 77 urte (Martxoak 17)
- Dominga Zaldunbide Mallabia, 87 urte (Martxoak 23)
- Iñaki Murua Gabilondo, 55 urte (Martxoak 28)



ETXEBERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak. Donostia eta probintziako eritetxe zentruetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 74 13 27 (Etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 908 77 07 01

ASTEAN ZEHAR

12 OSTIRALA

22,15 ZINEA

“Mentes peligrosas”

13 LARUNBATA

19,30-22,15 ZINEA

“Mentes peligrosas”

14 IGANDEA

12,30 UDAL MUSIKA
BANDAREN KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

16,30-19,30-22,15 ZINEA

“Mentes peligrosas”

15 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

“Mentes peligrosas”

16 ASTEARTEA

19,00 LIBURU AURKEZPENA

Egilea: Luis Ecenarro

“Elgoibar: de las ferrerías a la máquina herramienta (maestro rejeros, relojeros y armeros)”
Argitaratzailea eta antolatzailea:

Kutxa

✓ Herriko Antzokian

22,00 ZINEA

“Mentes peligrosas”

17 ASTEAZKENA

19,30 TRINITATE JAIETAKO
TANBORRADARAKO BILERA

✓ Kultur Etxean

19 OSTIRALA

19,00 PINTURA ERAKUSKETA

Egilea: Oscar Tirado

✓ Kultur Etxean

Maiatzaren 5era arte

22,30 ANTZERKIA

Antzezlan: “La Garbo S.A.-Kale Gorrian”

Taldea: Markeliñe

✓ Herriko Antzokian

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
13, larunbata:	Ormazabal	Ormazabal
14, igandea:	Ormazabal	Ormazabal
15, astelehena:	Etxeberria	Etxeberria
16, asteartea:	Etxeberria	Etxeberria
17, asteazkena:	Etxeberria	Etxeberria
18, osteguna:	Etxeberria	Etxeberria
19, ostirala:	Etxeberria	Etxeberria

OKINDEGIA:

14, igandea: DONA MERCEDES

ZineA

Mentes peligrosas

Zuzendaria: John N. Smith

Antzezleak: Michelle Pfeiffer,
George Dzundza.

Marine izandako emakume batek karrera militarra uzten du beti nahi izan duen lanbidean lan egiteko. Ingeles klaseak ematen ditu Ipar Californiako institutu batean. Ikasleak oso bereziak dira eta irakaslearen bizitza aldaraziko dute betirako. Irakaslearen bizimoduak ere erabateko aldaketa jasango du.



GAZTELU

Mota guztietako

Ezkontza soinekoak

berriak eta bigarren eskukoak
50 modelo baino gehiago

Zatoz konpromezurik gabe! Legarre behea, 9 - Tel. 10 81 59 -

Baserriko
haragietan
berezia



Harategi Urdaitegia

San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40

Antzerki mutua

Apirilaren 19an, ostirala

Herriko Antzokian, gaueko 10,30etan

Sarrera: 500 pta

(300 pta Gazte Txartelarekin)



LA GARBOSA

ANTOLATZAILEA:
Elgoibarko Udala



Laguntzailea:
Eusko Jauriaritzako Antzerki Sarea



Grafologia

ikastaroa

Irakaslea:
Irene Ibarra
Psikologoa eta Grafologoa

Plaza mugatuak!!

Prezioa: 1.000 pta.

Izena emateko azken
eguna: apirilak 22

Informazio gehiago: 74 16 26 (Imanol)

Hasierako maila (6 ordu)

1. saioa (apirilak 25, osteguna)

- Grafologiaren historia, eskolak eta aplikazio praktikoak.
- Espazioaren erabilpena eta neurriaren esanahia.
- Letra berezi bat, "t" letra.

2. saioa (apirilak 29, astelehena)

- Forma, lotura, makurdura, presioa.
- Letra berezi bat, "g" letra.

3. saioa (maiatzak 9, osteguna)

- Lerroen norabidea, sinadura eta izenpea.
- Letra bereziak: "obaluak".

Kultur Etxean
arratsaldetan
19:00-21:00

idazkera eta
marrazkien bitartez
nortasuna ezagutzeko bidea



ANTOLATZAILEA:
ELGOIBARKO IZARRA
Kultur Elkartea